

ERANSKINA.–188 EREDUAREN AURKEZPEN ELEKTRONIKORAKO SORTZEN DIREN FITXATEGIEK BETE BEHARREKO DISEINU LOGIKOAK

Erregistroen azalpena

Atxikitzaile bakoitzarentzat edo konturako sarrerak egin behar dituen bakoitzarentzat bi erregistro mota izanen dira, lehen idazgunearen arabera bereizten direnak, irizpide hauen arabera:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa: identifikazio datuak eta aitortenaren laburpen-orria. 1. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honetako eranskinean ageri direnetatik.

2. mota: Hartutakoaren erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honetako eranskinean ageri direnetatik.

Aurkezteko ordena erregistro motarena izanen da. 1. motako erregistro bakar bat egonen da, eta 2. motakoen kasuan, aitorpenean zenbat aitortu dauden, horrenbeste erregistro izanen dira.

Eremu alfazenbakizko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldera zuriunez beterik aurkeztuko dira, letra larrietan, karaktere berezirik eta bokal azentudunik gabe.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako, ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Hala, “Ñ” letrak ASCII 209 (Hex. D1) balioa izanen du eta “Ç” letrak (c hautsi maiuskula) ASCII 199 (Hex. C7) balioa.

Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik agertuko dira, zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiek izanen dute edukia, eremuaren azalpenean kontrakoa zehazten ez bada. Edukirik ez badute, zenbakizko eremuak zeroz beteko dira, eta alfazenbakizkoetan eta alfabetikoetan, berriz, zuriuneak utziko dira.

Aurkezpen kolektiboa egiten denean (atxikitzaile bat baino gehiago fitxategi berean), euskarriaren lehen erregistro gisa zero motako erregistro bat aurkeztuko da (aurkezlearen erregistroa), jarraian azaltzen den zero motako erregistroaren diseinuari jarraikiz. Horretan sartuko dira aurkezpenaren erantzulea den pertsonaren edo entitatearen datuak, eta beti egingen da, nahiz eta pertsona edo entitate hori euskarrian atxikitzaile moduan ere aurkeztu. Jarraian, lehen atxikitzailearen datuak jarriko dira (1. motako erregistroa), eta, ondoren, hartzaileak (2. motako erregistroa); gero, hurrengo atxikitzailearen datuak, eta, ondoren, hartzaileak; eta horrela hurrenez hurren.

Fitxategiko lehen erregistroak (0 motakoa, aitortena kolektiboki aurkezten denean edo 1. motakoa, banaka aurkezten denean) 13 karaktereko eremua izanen du, 238. idazgunearen eta 250.aren artean, zigilu elektronikoa jartzeko. Nafarroako Zerga Ogasunak ematen dituen programa ofizialen bidez bakarrik jarriko da zigilu hori. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da.

188 EREDUA

A) 0 erregistro mota: Aurkezpen kolektiboa.

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '0' (zero).
2-4	Zenbakizkoa	AURKEZTEKO EREDUA. Konstantea: '188'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA. Euskarrian sartutako aitorten zerga-ekitaldiari dagozkion lau zifrak.

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
9-17	Alfazenbakizkoa	AURKEZLEAREN IFZ-A. Aurkezlearen IFZa adieraziko da. Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, azken idazgunea kontrol karakterea izanen da, eta ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira, honako hauetan aurreikusitako arauekin bat: uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretua (haren bidez onetsi zen Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra) eta otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretua (haren bidez ezarri ziren Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen arauak).
18-57	Alfazenbakizkoa	AURKEZLEAREN IZEN-DEITURAK EDO SOZIETATEAREN IZENA. 1. motako erregistroan aitortzailearentzat azaldutako irizpide berarekin beteko da.
58-109	Alfazenbakizkoa	AURKEZLEAREN HELBIDEA. Eremu hau bederatzi banatzen da:
		58-59 SG. Bide publikoaren siglak.
		60-79 BIDE PUBLIKOA. Bide publikoaren izena. Alfabetikoa izan behar du, eta, beraz, izenean zenbakiak izanez gero, letraz idatziko dira (adibidez: maiatzaren 2a maiatzaren bia izanen da). Errepidea baldin bada, km laburdurarekin bukatuko da.
		80-84 ZENBAKIA. Etxearen zenbakia edo kilometro puntua (zenbaki dezimalik gabe). Zenbakizkoa eta bost idazgunekoa izan behar du.
		85-86 ESKAILERA.
		87-88 SOLAIRUA.
		89-90 ATEA.
		91-95 POSTA KODEA. Aurkezlearen helbideari dagokiona. Zenbakizkoa eta bost idazgunekoa izan behar du.
		96-107 UDALERRIA. Hamabi idazgune hartzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baldin baditu, lehenbiziko hamabiak idatziko dira, artikulurik eta preposizioarik gabe.
		108-109 PROBINTZIAREN KODEA. Hartzailearen erregistroko (2. mota) "PROBINTZIAREN KODEA" eremurako erabilitako irizpide berari jarraikiz beteko da. Zenbakizkoa
110-114	Zenbakizkoa	AITORTZAILEAK, GUZTIRA. Zenbakizko eremua, 5 idazgunekoa. Euskarri kolektiboan sartutako pertsona edo entitate aitortzaile guztien kopurua adieraziko da. (Grabatutako 1. motako erregistroen kopurua).
115-123	Zenbakizkoa	HARTZAILEAK GUZTIRA. Zenbakizko eremua, bederatzi idazgunekoa. Euskarri kolektiboan sartutako hartzaile guztien kopurua jarriko da. (Grabatutako 2. motako erregistroen kopurua).
124	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA. Gako honekin beteko da:
		'T': Transmisio telematikoa.
125-173	Alfazenbakizkoa	HARREMANETARAKO PERTSONA. Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:
		125-133 TELEFONOA. Zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa.
		134-173 DEITURAK ETA IZENA. 1. motako erregistroan aitortzailearentzat azaldutako irizpide berarekin beteko da.
174-237	-	ZURIUNEAK
238-250	Alfazenbakizkoa	ZIGILU ELEKTRONIKOA. Aurkezpen kolektiboetako zigilu elektronikoa jartzeko eremua. Nafarroako Zerga Ogasunak ematen dituen programa ofizialek soilik beteko dute. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da.

* Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

–Edukirik ez duten alfazenbakizko eremuak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

–Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.

–Eremu alfazenbakizko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larri, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.

B) 1. motako erregistroa: aitortzailearen erregistroa.

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '1' zenbakia.
2-4	Zenbakizkoa	AURKEZTEKO EREDUA. Konstantea: '188'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA. Aitorpenari dagozkion zerga-ekitaldiaren lau zifrak
9-17	Alfazenbakizkoa	AITORTZAILEAREN IFZ-A. Aitortzailearen IFZa adieraziko da. Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, azken idazgunea kontrol karakterea izanen da, eta ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira, honako hauetan aurreikusitako arauekin bat: uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretua (haren bidez onetsi zen Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra) eta otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretua (haren bidez ezarri ziren Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen arauak).
18-57	Alfazenbakizkoa	AITORTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA, EDO SOZIETATEAREN IZENA Pertsona fisikoa bada, hauek idatziko dira: lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izena osorik, nahitaez ordena horretan. Pertsona juridikoa bada, sozietatearen izen osoa jarriko da. Eremu honetan inola ere ez da izen komertzialik adieraziko.
58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA. Gako honekin beteko da: 'T': Transmisio telematikoa.
59-107	Alfazenbakizkoa	HARREMANETARAKO PERTSONA. Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: 59-67 TELEFONOA. Zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa. 68-107 DEITURAK ETA IZENA. Lehenbiziko deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, hurrenkera horretan nahitaez.
108-120	Zenbakizkoa	AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA. Aitorpenaren frogagiriaren zenbakia idatziko da. 188 ereduari adierazi beharreko aitorpenaren identifikazio zenbakia zenbaki sekuentzial bat izanen da. Haren lehen hiru digituak 188 kodea izanen dira.
121-122	Alfabetikoa	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA. Aitorpen bat, salbuespenez, bigarren aldiz edo ondoren aurkezten bada, eremu hauetako bat bete beharko da nahitaez: 121 AITORPEN OSAGARRIA: "C" bat adieraziko da, aitorpen hau aurkeztearen helburua baldin bada ekitaldi berean aurkezturiko beste aitorpen batean agertu behar zuten baina agertu ez ziren hartutakoak adieraztea. 122 ORDEZKO AITORPENA: "S" bat idatziko da baldin eta aurkeztearen xedea zerga-ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat ezabatu eta osorik ordeztekoa bada. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baizik ez dezake balio gabetu.
123-135	Zenbakizkoa	AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA. Baldin eta "AITORPEN OSAGARRIA" eremuan "C" bat idatzi bada, osatzen duen aitorpenari dagokion frogagiri zenbakia idatziko da, zeroak jarritz bidalketaren identifikazioari dagozkion azken hiru idazguneetan. Baldin eta "AITORPEN OSAGARRIA" eremuan "S" bat idatzi bada, ordeztzen duen aitorpenari dagokion identifikazio zenbakia idatziko da, bidalketaren identifikazioari dagozkion azken hiru idazguneetan zeroak jarritz. Beste edozein kasutan, zeroz beteko da.
136-144	Zenbakizkoa	HARTZAILEAK, GUZTIRA. Zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa. "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIAN" zeinu positiboa duten hartzaile guztien (erregistroak) kopurua idatziko da. Hartzaile bera erregistro bat baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den adina aldiz konputatuko da.
145-159	Zenbakizkoa	ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA. Zenbakizko eremua, 15 idazgunekoa. Hartzailearen erregistroetan "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA" eremuan (119-130 idazguneak) zeinu positiboarekin adierazten diren diru kopuru guztien batura idatziko da, zeinurik eta zenbaki dezimalik gabe.

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
160-174	Zenbakizkoa	ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN ZENBATEKOA, GUZTIRA Zenbakizko eremua, 15 idazgunekoa. Hartzailearen erregistroetan "ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK" eremuan (135-147 idazgunek) adierazten diren diru kopuru guztien batura idatziko da, zeinurik eta zenbaki dezimalik gabe.
175-183	Zenbakizkoa	HARTZAILEAK, GUZTIRA. Zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa. "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIAN" zeinu negatiboa eta/edo zero duten hartzaile guztien (erregistroak) kopurua idatziko da. Hartzaile bera erregistro bat baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den adina aldiz konputatuko da.
184-198	Zenbakizkoa	ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA. Zenbakizko eremua, 15 idazgunekoa. Hartzailearen erregistroetan "ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA" eremuan (119-130 idazgunek) zeinu negatiboarekin adierazten diren diru kopuru guztien batura zeinurik eta zenbaki dezimalik gabe idatziko da.
199-237	-----	ZURIUNEAK
238-250	Alfazenbakizkoa	ZIGILU ELEKTRONIKOA. Banakako aurkezpenetan zigilu elektronikoa jartzeko eremua. Nafarroako Zerga Ogasunak ematen dituen programa ofizialek soilik beteko dute. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da.

- Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.
- Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.
- Edukirik ez duten alfazenbakizko eremuak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.
- Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.
- Eremu alfazenbakizko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larriaz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.

C) 2. motako erregistroa: hartzailearen erregistroa.

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '2' zenbakia.
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA. Konstantea: '188'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera idatzi.
9-17	Alfazenbakizkoa	AITORTZAILEAREN IFZ-A. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera idatzi.
18-26	Alfazenbakizkoa	HARTZAILEAREN IFZ-A. Hartzaileak Espainian esleitutako IFZa badu, honela idatziko da: Pertsona fisikoa bada, hartzailearen IFZa idatziko da, Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorrean (uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsia) eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia arautzen duen otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretuan ezartzen diren arauak jarraituz. Hartzailea pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko entitate bada (ondasunen erkidegoa, sozietate zibila, jaso gabeko jarauntsia, etab.), haren identifikazio fiskaleko zenbakia idatziko da. Tributu harremanetan edo tributu gaitan eragina duten harremanetan 14 urtetik beherako pertsonak identifikatzeko, 14 urtetik beherako pertsonaren datuekin batera, identifikazio fiskaleko zenbakia barne, haren legezko ordezkariarenak ere azaldu beharko dira. Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egon da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerraldeko idazguneak zeroz beteko dira. Espainian esleituriko IFZarekin bakarrik beteko da.

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA			
27-35	Alfazenbakizkoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ-A. Hartzailea 14 urtetik beherakoa bada, haren legezko ordezkariaren identifikazio fiskaleko zenbakia (aita, ama edo tutorea) idatziko da eremu honetan. Eremu hau eskuinaldera lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerraldeko idazguneak zeroz beteko dira. Beste edozein kasutan zuriuneak utziko dira eremu honen edukian.			
36-75	Alfazenbakizkoa	HARTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZietate-IZENA EDO IZEN-DAPENA. a) Pertsona fisikoa bada, aurrena lehen abizena, tarte bat, bigarren abizena, tarte bat eta izen osoa idatziko dira, hurrenkera horretantxe. b) Pertsona juridikoen edo errentak eratxikitzeo araubidean dauden entitateen kasuan, izendapen osoa idatziko da, anagramarik gabe.			
76-77	Zenbakizkoa	PROBINTZIAREN KODEA. Hartzaileak helbidea duen probintziari edo, hala bada, hiri autonomoari edo La Palma uharteari dagozkion bi digituak idatziko dira, zerrenda honen arabera:			
		PROBINTZIA	PK	PROBINTZIA	PK
		ALBACETE	02	JAÉN	23
		ALACANT	03	LEÓN	24
		ALMERÍA	04	LLEIDA	25
		ARABA	01	LUGO	27
		ASTURIAS	33	MADRIL	28
		ÁVILA	05	MÁLAGA	29
		BADAJOS	06	MELILLA	52
		BARTZELONA	08	MURTZIA	30
		BIZKAIA	48	NAFARROA	31
		BURGOS	09	OURENSE	32
		CÁCERES	10	PALENTZIA	34
		CÁDIZ	11	LAS PALMAS	35
		KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
		CASTELLÓ	12	ERRIOXA	26
		CEUTA	51	SALAMANCA	37
		CIUDAD REAL	13	SANTA CRUZ TENERIFEKOA (La Palma uhartea izan ezik)	38
		KORDOBA	14	SEGOVIA	40
		A CORUÑA	15	SEVILLA	41
		CUENCA	16	SORIA	42
		GIPUZKOA	20	TARRAGONA	43
		GIRONA	17	TERUEL	44
		GRANADA	18	TOLEDO	45
		GUADALAJARA	19	VALENTZIA	46
		HUELVA	21	VALLADOLID	47
		HUESCA	22	ZAMORA	49
		BALEARRAK	07	ZARAGOZA	50
		LA PALMA UHARTEA	53		
78	Zenbakizkoa	MODALITATEA. Beti bete beharko da eremu hau. Ondoren azaltzen diren zenbakietako edozein idatziko da adierazteko hartzaile bakoitzari ordaindutako errentaren edo ondasun higigarrien kapitalaren modalitatea, xehetasun honen arabera:			
		1 Baldin ondoko eremuan idazten den errenta edo ondasun higigarrien kapitala diruzkoa bada.			

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA	
		2 Baldin ondoko eremuan idazten den errenta edo ondasun higigarrien kapitala gauzatan bada.	
79-91	Alfazenbakizkoa	ERRENTAK EDO ONDASUN HIGIGARRIEN KAPITALAREN ETEKINAK. Eremu honetan idatzi beharreko zenbatekoa, kasu bakoitzean egoki den zeinuarekin, honako hau izanen da: Baldin hartzailea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergaduna bada, idatziko da hartzaile bakoitzari dagozkion zeinu bereko kapital higigarriaren etekinen zenbatekoen batura; hain zuzen ere, bizi edo baliaezintasun aseguru kontratuen bidez eta kapitalizazio eragiketen bidez lortutako kapital higigarriaren etekinen batura. Baldin hartzailea sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboa bada, edo ez-egoiliarren (establezimendu iraunkorrak) errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna, idatziko da hartzaile bakoitzari dagozkion zeinu bereko errenten zenbatekoen batura; hain zuzen ere, bizi edo baliaezintasun aseguru kontratuen bidez eta kapitalizazio eragiketen bidez lortutako errenten batura. Eremu hau honela banatzen da:	
		79	ZEINUA: Alfabetikoa. Arestian azaldu den zenbatekoa negatiboa bada, "N" bat idatziko da. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da.
		80-91	ZENBATEKOA: Zenbakizko eremua, 12 idazgunekoa. Lehen adierazitako kopurua idatziko da, zeinurik eta koma dezimalik gabe.
92-104	Alfazenbakizkoa	INFORMAZIO OSAGARRIA. Laukitxo honetan hau idatziko da: Biziarteko errenta eratzeko unean adierazi zen errenta salbuetsiaren zenbatekoa, baldin biziarteko errenta horren eskubide ekonomikoak osorik edo partzialki aurrerratu badira (betiere, biziarteko errenta horrek izan behar du aurrezpen sistematikoko banakako plan batek emandako baliabide ekonomikoekin eraturia). Aurreratzeari dagozkion etekinak zer erregistrotan sartzen diren, hor bertan eman behar da informazio hau. 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen kontratatutako bizi aseguru bat edo baliaezintasun aseguru bat izanik eta kapital higigarriaren etekinak sortzen dituelarik, hartatik heldu den kapital geroratu baten etekinen zenbatekoa; etekin horiei aplikatuko zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Zenbateko hori borondatez idatziko da, kapital geroratuari dagozkion etekinen datuak idatzi diren hartzailearen erregistro berean. Eremu hau bitan banatzen da:	
		92	ZEINUA: Alfabetikoa. Arestian azaldu den zenbatekoa negatiboa bada, "N" bat idatziko da. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da.
		93-104	ZENBATEKOA: Zenbakizkoa. Zeinurik gabe eta euroaren zentimoetan idatziko da; hortaz, zenbatekoek ez dute inoiz koma dezimalik izanen.
105-117	Zenbakizkoa	MURRIZKETAK (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren –ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia– laugarren xedapen iragankorra). Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Eremu hau beteko da bakar-bakarrik baldin etekinen hartzailea bada pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako zergadun bat. Hartan, zeinurik eta zenbaki dezimalik gabe idatziko da aplikatu diren murrizketen zenbatekoa, hain zuzen ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren –ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia– laugarren xedapen iragankorrean aipatutako murrizketena. Aurrekoa gorabehera, eremu honetan zero idatziko da baldin "ERRENTAK EDO ONDASUN HIGIGARRIEN KAPITALAREN ETEKINAK" eremuan adierazitako zenbatekoa negatiboa bada. Eremu honetan ez da inolako zenbatekorik idatzi behar, baldin errenten hartzailea bada sozietateen gaineko zergari lotutako subjektu pasiboa edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna (establezimendu iraunkorrak).	

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA	
118-130	Alfazenbakizkoa	ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA. Eremu honetan idatzi beharreko zenbatekoa, kasu bakoitzean egoki den zeinuarekin, honako hau izanen da: Baldin hartzailea bada pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna, honako kenketa honen emaitza idatziko da: “ERRENTAK EDO ONDASUN HIGIGARRIEN KAPITALAREN ETEKINAK” eremuan idatzitako zenbatekoa ken “MURRIZKETEN ZENBATEKOAK (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren –ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia– laugarren xedapen iragankorra)” eremuan idatzitako zenbatekoa. Baldin hartzailea bada sozietateen gaineko zergari lotutako subjektu pasiboa, edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari lotutako zergaduna (establezimendu iraunkorrak), idatziko da “ERRENTAK EDO ONDASUN HIGIGARRIEN KAPITALAREN ETEKINAK” eremuan jasotako zenbateko bera, zeinu berarekin. Eremu hau honela banatzen da:	
		118	ZEINUA: Alfabetikoa. Arestian azaldu den zenbatekoa negatiboa bada, “N” bat idatziko da. Bestelako edozein kasutan, zuriunez beteko da.
		119-130	ZENBATEKOAK: Zenbakizko eremua, 12 idazgunekoa. Lehen adierazitako kopurua idatziko da, zeinurik eta zenbaki dezimalik gabe.
131-134	Zenbakizkoa	ATXIKIPENAREN %. Aplikatutako atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea idatzi behar da; hain zuzen ere, indarreko araudiaren arabera une bakoitzean aplikatzekoa dena. Ekitaldian zehar atxikipenaren ehuneko portzentaje bat baino gehiago erabili bada, azkenekoa bakarrik jarri behar da. Eremu hau bitan banatzen da:	
		131-132	OSOA. Zenbakizkoa. Zati osoa. Portzentajearen osoko zatia idatziko da (ez badu, ZEROAK idatzi).
		133-134	DEZIMALA. Zenbakizkoa. Zati dezimala. Portzentajearen zati dezimala idatziko da (ez badu, ZEROAK idatzi).
135-147	Zenbakizkoa	ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. “ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA” eremuan adierazitako zenbatekoari “ATXIKIPENAREN %” eremuan atxikipenak edo konturako sarrerak egiteko adierazi den portzentajea aplikatzearen ondoriozko emaitza adieraziko da, zeinurik eta zenbaki dezimalik gabe. Aurrekoa gorabehera, eremu honetan zero idatziko da baldin negatiboa bada “ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN OINARRIA” eremuan adierazitako zenbatekoa.	
148-151	Zenbakizkoa	SORTZAPENAREN ZERGA-EKITALDIA. Eremu hau beteko da baldin urteko laburpenean adierazitako errenta edo kapital higigarriaren etekinetakoa bat edo batzuk baldin badira sortzapena edo galdagarritasuna aitorpenaren xede den ekitaldiaren aurreko ekitaldietakoa duten zenbateko ordainduen gainekoa; kasu horietan, behar diren gainerako datuak betetzeaz gain, sortzapen ekitaldiaren lau zifrak adieraziko dira eremu honetan. Hartzaile berari ekitaldi bat baino gehiagotan sortutako kopuruak ordaintzen bazaizkio, datuak erregistro desberdinetan banatuta jarri behar dira, erregistro bakoitzean ekitaldi bakar bateko sortzapenen datuak ager daitezzen.	
152	Alfabetikoa	GAKOA. Hurrengo gakoetatik egoki dena idatzi beharko da:	
		A	Gako hau idatziko da INFORMAZIO GEHIGARRIA laukian bizi edo baliaezintasun aseguru-kontratu batean sorburua duen kapital geroratu baten etekinak adierazten direnean, baldin eta 2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen araubide fiskala aplikatuz zehaztu badira; etekin horiei aplikatuko zaie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren hogeigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa.
		B	Gako hau idatziko da INFORMAZIO GEHIGARRIA laukitxoan jartzen denean biziarteko errenta eratzeke unean adierazi zen errenta salbuetsiaren zenbatekoa, baldin biziarteko errenta horren esku-bide ekonomikoak osorik edo partzialki aurreratu badira (betiere, biziarteko errenta horrek izan behar du aurrezpen sistematikoko banakako plan batek emandako baliabide ekonomikoekin eratua).

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA		
153	Alfabetikoa	BIZIARTEKO ERRENTA BERMATUA. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia) 45.3. artikuluan aipatutako biziarteko errenta bermatuak merkaturatzen dituzten aseguru-entitateek gako hauetako bat markatu beharko dute:		
		A	Aitorpenari dagokion urtean, biziarteko errenta bermatu bat eratzea. Gako hori idatzi beharko da, orobat, baldin aitortuak lortutako ondare irabaziengatik jasandako atxikipenaren zenbatekoa erabiltzen badu, urte horretan berean, biziarteko errenta bermatu bat eratze-ko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren –ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia– 45.3 artikuluan adierazi bezala.	
		B	Biziarteko errentaren ondoriozko eskubide ekonomikoak, guztiz edo partez, aldeztu aurretik eskuratzea.	
		Gainerako kasuetan, eremu hau hutsik utzi behar da.		
154-161	Zenbakizkoa	ERAKETAREN EDO AUERRERAPENAREN DATA. Biziarteko errenta bermatua noiz eratu edo aurreratu den idatzi behar da. Aitorpenari dagokion ekitaldian zehar biziarteko errenta bermatua bai eratu eta bai aurreratu egin bada, bi eragiketa horiei buruzko informazioa aitorpen erregistro banatan adierazi beharko da. Eremu hau hirutan banatzen da:		
		154-157	Zenbakizkoa	Urtea
		158-159	Zenbakizkoa	Hilabetea
		160-161	Zenbakizkoa	Eguna
162-185	Alfazenbakizkoa	BIZIARTEKO ERRENTA BERMATUAREN IDENTIFIKAZIOA. Biziarteko errenta bermatua merkaturatzen duen aseguru entitateak zer zenbaki edo kode erabiltzen duen errenta hori identifikatzeko, hura bera idatzi behar da.		
186-195	Zenbakizkoa	JARRITAKO PRIMA. Idatzi behar da zenbateko prima jarri duen aitortuak biziarteko errenta bermatua eratze-ko. Zenbatekoa euro-zentimoetan adieraziko da; hortaz, inoiz ez da zenbaki dezimalik azalduko.		
196-210	Zenbakizkoa	ASEGURUEN ONDORIOZKO ETEKINAK, ONURADUNA HARTZEKODUN HIPOTEKARIOA DENEAN. Baldin gertatzen badira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bateginaren –ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia– berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren inguruabarrak, idatzi beharko da atxikipenik ez duen etekina. Zenbatekoa euro-zentimoetan adieraziko da; hortaz, inoiz ez da zenbaki dezimalik azalduko.		
211-250	-	ZURIUNEAK		

* Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.

–Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

–Edukirik ez duten alfazenbakizko eremuak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

–Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldera lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.

–Eremu alfazenbakizko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larriaz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.